	80	Pottokak (Zaldien mundurako lehen hartu-eman)	200,00 €	120,00 €	90,00 €
	81	San Juan Sua	50,00 €	47,50 €	35,63 €
	82	Senda Belarrak ikastaroa	825,00 €	495,00 €	371,25 €
	83	XIX. Argazki Lehiaketa	325,00 €	308,75 €	231,56 €
		GUZTIRA	131.799,47 €	64.515,08 €	48.386,31 €

Bigarrena: Ekintza hauei, berriz, dirulaguntzarik ez ematea.

Eskatzailea		Ekintza	Dirulaguntza
Noaua!	27	Pirritx eta Porrotx	0,00 €
Antxomolantxa	32	“Gu primer” ikuskizuna	0,00 €
Zumarte Musika eskola	40	Musika ikastaro trinkoa	0,00 €
	41	Gironako musika eskolarekin ez-ohiko trukaketa-irteera	0,00 €
Bidean Agiñarron Herri Elkartea	68	Belako taldearen kontzertua	0,00 €
Santuenea Kultur Elkartea	71	Antzerkia eta zirkoa	0,00 €
	72	Bertso Saioa	0,00 €



Usurbilgo Udala

Hirugarrena: Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2022 (A44-2022).

Laugarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bosgarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea ordainketak egiteko.

11.- KULTUR SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK (2022UDSO).

Esp.zk.: 2022UDSO0001

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022-02-17an, kultur sorkuntzarako egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2022ko martxoaren 8an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira 10 eskaera jaso ziren.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak, Soziokultura Saileko teknikariaren txostena kontuan hartuta, ekainaren 15eko bilkuran ebazpen proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2022-03-08).
- 2022-06-10eko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

ERABAKIA

Lehena: kultur sorkuntzarako dirulaguntza-zenbateko hauek behin betiko onartzea eta dirulaguntzen 1. zatia ordaintzea (%75a).

Eskatzailea	Ekintza	Onartutako proiektuaren zenbatekoa	Dirulaguntza	Dirulaguntzaren 1. zatia
Ixabel Agirresarobe	Gatazkazalak	2.400,00 €	2.400,00 €	1.800,00 €



Usurbilgo Udala

Mikel Telleria + Usoa Zumeta	Zumeta Diskoa	13.750,00 €	3.000,00 €	2.250,00 €
Usoa Zumeta	2Dtik 3Dra proiektuaren maketa sortzea	2095€	1500,00 €	1.125,00 €
Antton Aranburu+ Zorione Mendez	DA proiektu kolektiboa	2.854,28 €	2.854,28 €	2.140,71 €
Yolanda Arrieta	HITZA ETA MUSIKA gelan, kanean, parkean, patioan...	3.000,00 €	3.000,00 €	2.250,00 €
Odolaren Mintzoa	"HAUSKOR" diskoa	3.000,00 €	3.000,00 €	2.250,00 €
Joseba Tapia	"Egon edo ez egon"	17.123,94 €	2.500,00 €	1.875,00 €
Buztinzulo Keramika Elkartea	Horma irudia elkarrekin sortuz	2.500,00 €	2.500,00 €	1.875,00 €
Viafara	"Viafara" diskoa	4.500,93 €	3.000,00 €	2.250,00 €
GUZTIRA			23.754,28 €	17.815,71 €

Bigarrena: Ekintza honi dirulaguntzarik ez ematea.

Eskatzailea	Ekintza	Dirulaguntza
Natali-Neona	"Mundu Berri Bat" diskoa	00,00 €

Hirugarrena: Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.06.2022 (A43-2022)

Laugarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bosgarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea ordainketak egiteko.

12.- ENPLEGUA SUSTATU ETA AUZOLANBERRI IV PROGRAMAN DAUDEN LANGABEAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZA (2022PDAU).

Esp.zk.: 2022PDAU0001

Ikusirik

2022ko apirilaren 4ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Enplegua Sustatu eta Auzolanberri IV programan dauden langabeak kontratatzeke dirulaguntzaren oinarriak, eskaerak aurkezteko epea hurrengo egunetik hasi da 2022ko azaroaren 30 arte.



Usurbilgo Udala

Diru-laguntza hau egoitza soziala edo lantokia Gipuzkoan duten enpresei zuzendua dago, Beterri Buruntza eskualdean Auzolan Berri IV. programan parte hartu duten eta programa hori gainditu duten langabeak kontratatzeko.

Pertsona onuradunak izango dira Eraikuntzako estaldura arin eta teknikoen oinarritzko eragiketak 1.mailako profesionaltasun ziurtagiria gainditu dutenak eta kontratua formalizatzeko orduan Lanbide Euskal Enplegu zerbitzuan langabezian dagoen eskatzaile gisa inskribatuak daudenak

Dirulaguntza honen oinarrietako 5. Artikuluan zehazten da ebazpenak bi epeetan emango direla:

-Lehen ebazpena: 2022ko uztailaren 15a arte aurkeztu eta kontratazioak formalizatuta dituzten eskariena

-Bigarren ebazpena: 2022ko azaroaren 30a arte egiten direnekin eta kontratazioak formalizatuta dituzten eskariena.

Lehenengo epearen barruan eskaera bat jaso dugu, 2022ko uztailaren 14ean sarrera duen Gipuzkooaplak S Coop Pequeñarena hain zuzen ere.

Enpresa eskatzaileak, diru-laguntza honen onuradun izateko 3.artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu da eta baita ere kontratatua izan den pertsonak 4. Artikuluan zehazten diren betekizunak.

Diruz lagundutako kontratazioei dagokionean gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango da lanaldi osoan. Kontratu mugagabe bat egin diote kontratatuari, lanaldi osora eta hiru hilabeteko epea igaro denean aurkeztu dute eskabidea.

10. artikuluan zehazten dira diru-laguntzen zenbatekoak eta lerroak:

1.-Langabe orokorra: 3 hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora 3000 €z lagunduko da.

2.-Sektorean enpleguratuak izateko pizgarri bereziak behar dituzten langabeak:

2.1.- Hiru hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora emakume denari egin ezker 4.500€z lagunduko da.

2.2. Lanerako aurrekontratu proposamen bat behar dutenei eginez gero, 4.500€ko laguntza jaso ahal izango da.

Kasu honetan langabe orokorra izanik, 3000 €ko dirulaguntza dagokio.

Aurkeztu ditu 11. Artikuluan zehazten diren ondorengo agiri hauek:

11.1. Diru-laguntzaren eskabidea egiteko agiriak:

- Eskabidea (1. Eranskina)
- Ordezkaritza egiaztatzea



Usurbilgo Udala

- Enpresaren IFK
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dagoen udalaren ziurtagiria
- Kontraturiko pertsonari eginiko kontratu mugagabea
- Kontratutako pertsonari Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta eman izanaren agiria

11.2. Zuriketa eta ordainketak:

- Diruz lagundutako kontratuaren 3 hilabetei dagozkien nominak, apirila, maiatza eta ekaina
- Dirulaguntzari dagokion epealdian (apirila, maiatza, ekaina) diruz lagundutako kontratuaren lansariak ordaindu direla egiaztatzen duen bankuko agiria.
- Maiatzeko RLC (TC1) eta RNT (TC2) aurkeztu dituzte

Diruz lagundutako aldi osoari dagokion laguntzaren xede den kontratuaren RLC eta RNT aurkeztu behar dituzte, hau da Apirila eta Ekainekoak falta dira eta honela adierazi zaie eginiko errekerimenduan.

Egindako kontratazioaren azken justifikazioa kontratazioa edota diruz lagundu daitekeen gehieneko aldia amaitu denetik gehienez ere hilabete eta erdiko epean egingo da.

Beraz agiri hauek aurkezteko epea abuztuaren erdian amaitzen da.

11.artikuluan ere adierazten da dirulaguntzari dagokion ordainketa bakar bat egingo dela, diruz lagundu daitekeen kontratazioa justifikatu eta onartu ondoren , gehienez ere hilabeteko epean.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.
- Enplegua sustatu eta Auzolanberri IV programan dauden langabeak kontratatzeko dirulaguntza 2022 (GAO, 2022/04/04).

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Auzolanberri IV programan dauden langabeak kontratatzeko 3000 € tako diru-laguntza onartzea ondorengo eskatzaileari:

- F15161067 IFK duen Gipuzkoaplak S Coop pequeña Andoaingo enpresari

Bigarrena: Ordainketa kontratazioa justifikatzeko falta zaizkien agiriak aurkeztu eta onartu ondoren egingo da, ordainketa bakar batean eta beti ere gehienez ere hilabeteko epean.



Usurbilgo Udala

Hirugarrena: Diru-laguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.07.2022 (AD 1367/2022).

Laugarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratuko da , eta baita ere Usurbilgo Udalaren webean

Bosgarrena: Ebazpena enpresa onuradunari jakinaraztea

Seigarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

13.- PUNTAPAX KALEA 4 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. zk.: HZ.04/2022-0318
2022OHAN0017

VILLA MARIA JOSEFA (PUNTAPAX KALEA 4) ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H75165563) ordezkartzan diharduen IRATI ARZALLUS MOREA andereak, Puntapax kalea 4 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 80.122,12 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.d artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 945,25 € Fidantza (%120): 1.134,30 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martínez jaunak, 2022ko uztailaren 15ean ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: VILLA MARIA JOSEFA (PUNTAPAX KALEA 4) ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen IRATI ARZALLUS MOREA andereari, Puntapax kalea 4 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da, udalaren oniritzia jaso dezan. Exekuzio Proiektuak udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak beteko ditu, honakoak besteak beste:
 - **Proiektuan 68/2000 Dekretuan ezarritako irisgarritasun irizpideak betetzen direla justifikatu beharko da**, ez praktikagarritasun-irizpideak. Hau



Usurbilgo Udala

da, 68/2000 Dekretuaren III. eranskinean ezarritako irisgarritasun baldintzak bete beharko dira.

- **Igogailuaren kabinan eskudel jarraitu bat jarriko da**, kabinaren barrualdea 90 +/- 5 cm-ko altueran inguratuta.
- Exekuzio Proiektuan justifikatu egingo da argiztapenaren azalera 1 m²-koa eta aireztapenarena 0,40 m²-koa, gutxienez.
- Eraikuntzaren Kode Teknikoak Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasunari buruz ezartzen dituen baldintzak betetzen direla:
 - x EKT-DB-SUA 1eko 5. puntuan ezarritakoa bete beharko da.
 - x EKT-DB-SUA 1eko 3. puntuan ezarritakoa kontuan hartu beharko da.
 - x EKT-DB-SUA 1.3 puntuan ezarritakoa bete beharko da

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 945,25 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.134,30 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.134,30 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2022-0318*” jarriaz kontzeptuan.

- Egindako obraren balioari dagozkion zergak ordaindu egingo dira; baita hesia, karga-igogailua, aldamia edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarritz gero.
- Obrak gehienez ere 6 hilabeteko epean hasi beharko dira, emakidaren erabakia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere urtebeteko epean bukatu. Bestela lizentzia iraungi egingen da. Lanak eteteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izanen da, berariazko baimena izan ezean.
- Obrak egiterakoan, aurkeztutako eskaeran esandakoa egin behar da.
- Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.
- Horrez gain, hauxe gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko



Usurbilgo Udala

erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezeko erantzulea.

- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagokion baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- Fatxadatik materialak gora jaso edo behera jaisteko polea edo karga-igogailuren bat jarri beharra egongo balitz, beharrezkoa den baimena eskatu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Lan baten ezartzea beharrezkoa den edozein aldamio mota, lan hori eraikuntzaren kanpoaldean nahiz barrualdean izan, goialdean edo fatxadan aurrez behar den lizentzi edo baimena eskatu beharko da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Kalean lanik egin beharko balitz edo tresneriatza ipini beharra egon (konpresorea, bolketea...) babes hesia jartzeko baimena eskatu behar da (lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da), hartuko duen luza-zabalera eta neurriak zeintzuk izango diren aipatuz, eta eskaera horrekin batera, solairuaren plano bat bidaliz, hesitza hori non jarriko den zehatz-mehatz azalduko duena.
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsazaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak, EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).



Usurbilgo Udala

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
 - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
 - Obra baimenaren baldintzak betetzen direla Obra Zuzendaritzaren ziurtagiria.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

14.- SAN ESTEBAN KALEA 16 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. zb.: HZ.04/2022-0296
2022OHAN0015

SAN ESTEBAN KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20337150) ordezkartzan diharduen MIGUEL ANGEL DELGADO CAMINERO jaunak, San Esteban kalea 16 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 161.155,22 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.d artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.787,77 €
	Fidantza (%120): 3.345,32 €



Usurbilgo Udala

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martínez jaunak, 2022ko uztailaren 14an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: SAN ESTEBAN KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MIGUEL ANGEL DELGADO CAMINERO jaunari, San Esteban kalea 16 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.787,77 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (3.345,32 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

3.345,32 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2022-0296*” jarriaz kontzeptuan.
- EARKI ARKITEKTOAK taldeko Elena Campo Herrero arkitektoak 2022ko urtarrilean (EHAEO 2022-02-08) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Egindako obraren balioari dagozkion zergak ordaindu egingo dira; baita hesia, karga-igogailua, aldamia edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarritz gero.
- Obrak gehienez ere 6 hilabeteko epean hasi beharko dira, emakidaren erabakia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere urtebeteko epean bukatu. Bestela lizentzia iraungi egiten da. Lanak eteteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izanen da, berriazko baimena izan ezean.
- Obrak egiterakoan, aurkeztutako eskaeran esandakoa egin behar da.
- Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu



Usurbilgo Udala

dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.

- Horrez gain, haxe gogorazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezkari erantzulea.
- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagokion baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- Fatxadatik materialak gora jaso edo behera jaisteko polea edo karga-igogailuren bat jarri beharra egongo balitz, beharrezkoa den baimena eskatu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Lan baten ezartzea beharrezkoa den edozein aldazio mota, lan hori eraikuntzaren kanpoaldean nahiz barrualdean izan, goialdean edo fatxadan aurrez behar den lizentzi edo baimena eskatu beharko da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Kalean lanik egin beharko balitz edo tresneriatza ipini beharra egon (konpresorea, bolketea...) babes hesia jartzeko baimena eskatu behar da (lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da), hartuko duen luza-zabalera eta neurriak zeintzuk izango diren aipatuz, eta eskaera horrekin batera, solairuaren plano bat bidaliz, hesitza hori non jarriko den zehatz-mehatz azalduko duena.
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsatzaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuaren inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra



Usurbilgo Udala

gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.

- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak , EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
 - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
 - Obra baimenaren baldintzak betetzen direla Obra Zuzendaritzaren ziurtagiria.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 17:30k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.